

AURKEZPENA

Aurkezten den *Enpresaren Zuzenbiderako sarrera*: eskemak lanak oinarritzko tresna izan nahi du enpresa-jarduerari lotutako Zuzenbidearen edo arauketaren oinarritzko ezaugarriak eta edukia ikasteko. Liburuaren edukia eta egitura diseinatuta daude juridikoak ez diren graduetan, bereziki ekonomia- eta enpresa-zientziei lotutakoetan, Zuzenbidea modu errazean irakasteko eta ikasteko, ahaztu gabe gradu juridikoetan edo bestelako irakaskuntza-mailetan izan dezaketen erabilgarritasun handia.

Liburuaren edukia eta sistematizazioa erabakitzeko eta gauzatzeko orduan, Zuzenbidearen arlo ezberdinetako adituak diren Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko bost irakaslek parte hartu dute, guztiek ere irakaskuntzan eta ikerketan ibilbide luzea eta emankorra dutelarik, eta nagusiki merkataritza-zuzenbidean eta lan-zuzenbidean espezializatuta daudelarik.

Bost kapitulutuan zehar, aurkezten diren eskemek enpresen jardueran eta bizitzan eragin handiena duten Zuzenbidearen adarrak aztertzen dituzte, erraz eta egoki sistematizatuta, edukiaren osotasuna alboratu gabe. 300 eskema baino gehiagoren bidez hauek aztertzen dira: Zuzenbidearen kontzeptu orokorrak, obligazio eta kontratuen oinarritzko arauketa eta merkataritzako obligazio eta kontratuen berezitasunak, lan-kontratazioa, enpresariaren izaera eta estatutu juridikoa eta merkataritza-sozietateen erregimena. Azken gaiari garrantzi berezia ematen zaio haren garrantzi praktikoa dela eta.

Liburuaren lehen kapituluak Zuzenbidearen kontzeptua eta haren oinarritzko elementuak aztertzen ditu. Liburu honek bereziki merkatariei aplikagarri zaien Zuzenbidea ikasteko tresna izateko helburua duen arren, oso komenigarria iritzi zaio, sarrera gisa, lehenengo kapituluan Zuzenbidearen kontzeptua, ezaugarriak, hura aplikatzeko irizpideak eta Zuzenbidearen iturriak jasotzeko. Horrela, Zuzenbidearen kontzeptua aztertu eta hura osatzen duten arloen edukia modu laburrean azaltzen da (zuzenbide pribatua, publikoa, eta lan-zuzenbidea). Era berean, Espainiako estatuko zuzenbidearen iturriak zeintzuk diren aztertzen da, horien arteko hierarkia (nazioarteko arauak, Konstituzioa, lege-lerruneko arau motak, erregelamenduak, ohitura, printzipio orokorrak) azalduz.

Aurrekoari lotuta, bereziki lantzen da arau juridikoaren kontzeptua, haren elementuak, bestelako arau motetatik bereiztea (esaterako, gizarte-ohiturak), arau juridiko motak (zuzenbide orokorreko arauak eta zuzenbide bereziko eta salbuespeneko arauak, eta azken horiek lehentasunez aplikatzeko beharra; eta arau inperatiboak eta xedagarriak), eta arau juridikoak aplikatzeko irizpideak (*iura novit curia* —hau da, epaileak Zuzenbidea ezagutzen duelako ustea—, analogia —antzeko kasuetarako—, jurisprudentziaren erabilera, zuzentasuna edo ekitatea, eta, oro har, ordenamenduaren interpretazioa).

Aldi berean, Europar Batasuneko zuzenbideari aipamen berezia egiten zaio; izan ere, enpresariei dagokien zuzenbidearen zati handi batek Europar Batasuneko organoek onartutako arauetan du jatorria, hein handi batean estatu kideetako zuzenbidea bateratzea helburu duena. Zentzu horretan, Europar Batasuneko oinarritzko erakundeak zentzuk diren ikasten da, haien eskuduntzak eta funtzioak jasoz, eta Europar Batasuneko zuzenbidearen iturri bereziak (itun komunitarioak eta zuzenbide eratorria, bereziki erregelamenduak eta zuzentarauak aipatu behar direlarik) eta ezaugarriak aztertzen dira, bereziki aplikatzeko irizpideei dagokienez; izan ere, funtsezkoa da europar arauak noiz aplikatuko diren ezagutzea, estatu kideen arauekin batera existitzen baitira.

Bigarren ikasgaiak bereziki zuzenbide pribatuan, baina baita bestelako adarretan ere, oinarritzkoa den gaia lantzen du, enpresarien jardueran berebiziko garrantzia duena: obligazioak eta kontratuak. Kontuan izan behar da enpresarien harreman juridikoak kontratuetan oinarritu ohi direla eta haietatik mota ezberdinetako obligazio eta eskubideak jaiotzen dira. Gauzak horrela, enpresarien eguneroko jarduera neurri oso handian kontratuen bidez gauzatuko da ikuspuntu juridiko batetik, eta, beraz, ezinbestekoa da bai kontratuen bai obligazio juridikoen erregimena ezagutzea. Ikasgai honetan kontratu eta obligazioen erregimen orokorra aztertzen bada ere, bereziki zuzenbide zibilaren ikuspuntutik, ezin daitezke ahaztu enpresariak egiten dituzten kontratu bereziak, esaterako, lan-kontratuak (hirugarren ikasgaiaren espresuki ikasten direnak) eta sozietateak, azken finean, bosgarren ikasgaiaren aztertuko denez, kontratuak ere baitira. Zentzu horretan, hirugarren eta bosgarren gaietan kontratu horiei dagozkien berezitasunak aztertuko badira ere, horien kontratuzko aspektua ulertzeko ezinbestekoa da kontratuen teoria orokorra ezagutzea. Bigarren ikasgai honen edukiei dagokienez, bi zati nagusi bereiz daitezke. Alde batetik, lehenengo ataletan obligazioen eta kontratuen teoria orokorra aztertzen da, zuzenbide orokorrenaren zati direnak. Hau da, atal horietan kontratuen eta obligazioen arauketa zibil orokorra ikasten da. Gainontzeko atalek merkataritza-jarduerako kontratuen obligazio eta kontratuen espezialitateak azaltzen dituzte.

Aurkezpena

Beraz, esan bezala, lehenengo zatian obligazio eta kontratuen teoria orokorra aztertzen da, Kode Zibilak jasotzen duen arauketan oinarrituz. Gauzak horrela, ikasgaia obligazioaren kontzeptutik eta haren oinarriko elementuetatik abiatzen da, Zuzenbidearen aplikazioan funtsezkoak diren hainbat kontzeptu azalduz: obligazioaren subjektuak, subjektuen gaitasuna, subjektuen aniztasuna (mankomunitatea eta solidaritatea), edo obligazioaren objektua eta honen betekizunak. Era berean, obligazioen ohiko sailkapena eta edukia azaltzen da (emateko, egiteko eta ez egiteko obligazioak), bestelako hainbat sailkapenekin batera, ondorio juridiko ezberdinak izango dituztenak. Horien artean arreta berezia ematen zaie korrituen obligazioei eta haien arauketari.

Obligazioen arauketa orokorra azalduta, kontratuen erregimen orokorra jasotzen da, Zuzenbideak aitorturiko obligazioen iturri denez gero. Puntu honetan, kontratuaren kontzeptua eta edukia, eta kontratu motak aztertzen dira, zenbait sailkapenen arabera, baita, bereziki, kontratuaren nahitaezko elementuak ere: adostasuna, objektua eta karia, eta kontratua baliozkoa izateko bete behar dituen baldintzak. Bereziki garrantzitsua da adostasunaren eta, beraz, borondatearen elementuak eta betekizunak aztertzea, hala nola egon daitezkeen adostasunaren akatsak. Baldintza hauek betetzen badira, kontratua eratu ahal izango da; eta hori dela-eta, jarraian kontratua eratzeko pausoak eta baldintzak (eskaintzaren eta onarpenaren baldintzak) eta horren indar loteslea azaltzen dira, hau da, baliozkotasunez egindako kontratutik sortutako obligazioek alderdien artean lege-indarra dutela. Atal orokor honekin bukatzeko, kontratuaren betetzean eta eraginkortasunean egon daitezkeen akatsak ikasten dira. Horrela, alde batetik, kontratuaren ez-betetzeari dagozkion inguruabarrak azaltzen dira: zordunaren edo hartzekodunaren berandutzea eta horren eragina, baita zordunari egozgarri zaizkion edo egozgarri ez zaizkion ez-betetzeen arteko ezberdintasunak ere; izan ere, praktikan berebiziko garrantzia du obligazioa ez betetzean ezusteko edo ezinbesteko kausarik gertatu den argitzeak, zeren kasu horietan zordunak, oro har, ez baitu izango erantzukizunik ez-betetzearen gain, eta obligazioa iraungi egingo da. Kontrara, sortzen duten erantzukizunagatik, doluaren eta erruaren kontzeptuak ere azertu behar dira. Kontratuaren eraginkortasunik ezari dagokionez, hasierako eraginkortasunik eza eta eratorritako eraginkortasunik eza ezberdintzen dira.

Esan bezala, atal orokor honen ostean, merkataritza-obligazio eta -kontratuei dagozkien berezitasunak aztertzen dira, horretarako Merkataritza Kodean jasotako arauak azalduz. Zentzu horretan, bereziki aipagarriak dira obligazio soilen eskagarritasuna, merkataritzako berandutzearen araubide espezifikoak, merkataritza-obligazioei dagokien preskripzioari buruzko berezitasunak, merkataritza-ordezkaritza, merkataritza-kontratuen burutzea, merkataritza-kontratuen frogak, isiltasuna borondatearen adierazpen gisa, merkataritza-kontratuen interpretazioa, eta, oro har, haien ezaugarriak eta sailkapenak.

Gaiarekin bukatzeko, enpresaren gainean egin daitezkeen kontratuak aztertzen dira. Puntu honetan, oso garrantzitsua da «enpresa» eta «enpresari» kontzeptuak ikuspegi juridikotik ezberdintzea, eman ohi diegun esanahiaren aldean ezberdinak baitira. Horretarako, enpresaren definizioa ematen da, laugarren ikasgaiari buruzkoa) aipatutako elementuekin osatu behar dena. Horrela, ikuspegi juridikotik merkataritza-jarduera egikaritzen duena ez da enpresa, baizik eta enpresaria. Enpresa, aldiz, enpresariak jarduera ekonomikoa burutzeko erabiltzen duen kapital- eta lan-erakundea da. Enpresak (hau da, bere elementuen baturak, modu antolatuan) bera osatzen duten elementu osagarrien banakako balioen baturak baino balio handiagoa du, eta haren gaineko negozio juridikoak eta kontratuak egin daitezke. Horrelakorik eginez gero, enpresarekin batera hura osatzen duten elementuak ere eskualdatzen direnez, zenbait arazo juridiko sortzen dira, azken atal honetan aztertzen direnak. Alde batetik, arazo edo problematika orokor batzuk sortzen dira (zorrak jasotzea eta kreditu-lagapena, enpresaren kontratuen lagapena, eta eskualdatzailearen lehia-debekua), eta, bestetik, kontratu mota konkretu batzuei dagozkienak (ikasgai honetan enpresaren salerosketa, errentamendua, gozamina, enpresaren ondasun higigarrien gaineko hipoteka eta enpresaren *mortis causa* eskualdaketa ikasten dira).

Hirugarren ikasgaiak enpresan egiten den lan ekoizkorrari dagokion oinarrizko arauketa laburbiltzen du. Horretarako, ikuspegi juridiko batetik lan-harremanak definitzen dira, antzekoak izan daitezkeen baina lan-harremanak ez diren beste erlazio batzuetatik bereizteko; izan ere, lan-kontratu baten aurrean egongo gara, hurrengo baldintzok betetzen badira: lan pertsonala, borondatez edo askatasunez egindako lana, lana dependentea edo mendekoa izatea, beste baten konturako lana, eta ordaindutakoa izatea. Horrela, elementu horiek daudenean, bereziki mendekotasuna eta besterentasuna, lan-harreman baten aurrean egongo gara, eta Langileen Estatutua aplikatuko da (horrek jasotako salbuespeneko kasuetan izan ezik). Honek berebiziko garrantzia du; izan ere, elementu horiek agertzen badira, lan-harremanak lan-kontratuaren kalifikazioa izango du, eta alderdiek bestelako kalifikazio juridiko bat emanez gero, ez du efekturik izango, eta lan-kontratua izaten jarraituko du, horrek dakartzan efektu automatikoekin (Lan eta Gizarte Segurantzaren ordenamenduaren aplikazioa, eta bertan jasotzen diren derrigorrezko zuzenbideko eskubideei uko egiteko ezintasuna).

Lan-kontratuari dagokionez, garrantzi berezia dute Zuzenbidearen iturriei dagozkien berezitasunek, bai aplikatzen diren iturriei dagokienez, bai iturriok aplikatzeko irizpide espezifikoei dagokienez. Horrela, aplikagarri diren iturriei dagokienez, azpimarragarriak dira, esaterako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen, Europako Kontseiluaren eta Nazio Batuen Erakundearen hitzarmen eta gomendioak, baina baita, nagusiki, hitzarmen kolektiboak, enpresa-

Aurkezpena

akordioak eta lan-kontratuak berak ere. Hitzarmen kolektiboa lan-zuzenbidearen iturri berezkoena da, eta enplegu-emaileen (edo enplegu-emaile multzo baten edota haien elkarte baten) eta langileen ordezkarien artean egindako akordio idatzia da, lan-baldintzei buruzkoa, izaera arautzailea duena («lege-arima eta kontratu-gorputza» duela esan ohi da). Lan-kontratuari dagokionez, haren ezaugarri eta elementuez gain, lan-kontratuaren aldeko lege-ustea eta funtzioak ikasten dira. Esan bezala, lan-arloko iturriei dagokienez, horiek aplikatzeko berezitasunak ere azpimarragarriak dira, hala nola arauen arteko hierarkia, modernotasuna, langilearentzat araurik onuragarriena, eskubideen ukaezintasuna eta *in dubio pro operario* printzipioa (zalantzarik izanez gero, langilearentzako onuragarriena dena erabaki).

Langileen eskubideak ukaezinak direla abiapuntua izanik, Langileen Estatutuak jasotako gutxieneko eskubideak ere aztertzen dira, bai langileen oinarrizko eskubide orokorrak, bai lan-harremanetan dituzten eskubide konkretuak. Aldi berean, Langileen Estatutuak langileen oinarrizko betebeharrak jasotzen ditu.

Lan-harremanekin jarraituz, lan-harreman berezien erregimena ere aipatzen da. Hau da, Langileen Estatutuak berak arestian aipatutako elementuak dituzten harreman batzuk jasotzen ditu, lan-harremanak direnak, horientzako berariazko arauak aurreikusiz (esaterako, kirolari profesionalak, etxeko zerbitzuak, zigor-erakundeetan dauden zigortuek egindako lanak, ikuskizun publikoetan diharduten artistak, enplegurako lantegi berezietan zerbitzuak betetzen dituzten langile elbarriak, etab.). Horien artean enpresaren goi-zuzendaritzako pertsonala dago, lan mota hori egiten duten pertsonen eta enpresaren arteko harremanean, lan-harremana izan arren, espezialitate nabariak daude hainbat aspektutan (esaterako, iturrien sisteman).

Lan-kontratuz kanpoko ordaindutako jarduerari dagokionez, lan autonomoa edo norberaren konturakoa (ekonomikoki mendekoa den lan autonomoa barne) da azpimarragarria. Era berean, oro har, Langileen Estatutuak espresuki bere aplikazio-eremutik kanpo utzitako jarduerak jasotzen dira, zeinak, oro har, izaera zibil edo merkataritza-izaera duten akordioen bidez arautuko diren. Esaterako, Langileen Estatututik baztertutako jardueren artean hauek sartzen dira: funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak, norbanako bakoitzaren derrigorrezko zerbitzuak edota familiartekoen lanak (lanok egiten dituztenak soldatapean daudela frogatzen ez bada). Ikasgai honetan zerbitzu-akura kontratu, obra-akura kontratu, mandatu-kontratu eta agentzia-kontratuaren oinarrizko elementuak aztertzen dira, lan-kontratu bidez arautzen ez diren harremanak izanda.

Azkenik, Gizarte Segurantzari buruzko oinarrizko elementu batzuk ikasten dira: langilea Gizarte Segurantzaren sisteman barneratzeko obligazioa eta kotizatze obligazioa, eta horiek egikaritzeko oinarrizko baldintza eta araketa.

Laugarren kapituluaren bidez, merkataritza-enpresa antolatzeko moduak ikasten dira oro har, enpresariaren kontzeptuan eta erregimen juridikoan sakonduz. Horretarako, lehenengo eta behin enpresariaren edo merkatariairen legezko definizioa jasotzen da, Merkataritza Kodearen 1. artikuluan dagoena, bertan jasotzen diren zenbait elementu aztertuz: enpresariaren definizioaren garrantzia Zuzenbidearen ikuspuntutik, eta enpresaria izateko betekizunak (merkataritza jardutea, ohikotasunez, eta norberaren izenean). Enpresari sozialaren erregimenaren espezialitateak aurrerago ikasten direnez, ikasgai honetan arreta berezia ematen zaio enpresari indibidualari (enpresari soziala azken finean enpresaria dela ahaztu gabe, eta, beraz, enpresariaren estatutu juridikoa oro har aplikatzen zaiola ahaztu gabe). Horrela, enpresari indibidualaren izaeraren eskurapena ikasten da, enpresaria izateko gaitasunari dagokiona, baita enpresari-izaera galtzea ere. Enpresarien sailkapenak ere jasotzen dira, ondorio juridikoak izan baititzakete: enpresari indibidualak eta sozialak, enpresari pribatuak eta publikoak, eta enpresari handiak eta enpresari txiki eta ertainak.

Enpresariaren erregimen juridikoaren funtsezko elementu bat erantzukizuna da (enpresa-jardueragatiko erantzukizuna). Zentzu horretan, oinarrizko araua Kode Zibilean jasotako ondare-erantzukizun unibertsalaren printzipioa da: enpresariak, guztiok bezala, beren ondare osoarekin erantzun behar dute beren zorrak kitatzeko. Horrela, bai enpresari indibidualaren bai enpresari sozialaren erantzukizunak haien ondare osoaren gain du eragina (ezberdina da sozietate bateko bazkideei sozietate horren zorrakiko duten erantzukizuna, sozietate motaren arabera aldatzen dena; edozein kasutan, sozietatearen ondare osoak erantzun behar die zorrei). Aipagarria da 2013ko ekintzaileei laguntzeko legearen ondorioz enpresari indibidualaren erantzukizuna nolabait muga daitekeela, baina zenbait mugapen eta baldintzarekin (horren ondorioz, norbanakoaren ondarearen erantzukizuna mugatzeko modu eraginkorra bazkideen erantzukizun mugatuko sozietate bat eratzea da, bazkide bakarrekoa ere izan daitekeena).

Enpresariaren erantzukizunarekin jarraituz, ezkontuta dagoen enpresariaren erantzukizunak garrantzia handia du, ezkontideen ondare indibidualak eta ondare komunak daudenean (ondasun pribatiboak eta irabazpidezkoak); izan ere, zehaztu behar da ondare komunak eta enpresaria ez den ezkontidearen ondareak enpresa-jardueraren zorreatatik duten erantzukizuna (enpresariaren ondasun pribatiboek eta enpresa-jardueratik eratorritako

Aurkezpena

ondareak edozein kasutan erantzungo baitute). Kasu horretan, kapitulazioak egin diren edo ez aztertu beharko da, baita Merkataritza Kodeak jasotzen duen arauketa berezia ere.

Azkenik, enpresariaren erantzukizunari dagokionez, izan ditzakeen erantzukizun motak laburtzen dira: kontratuzko edo kontratuz kanpoko erantzukizuna, erantzukizun subjektiboa, erantzukizun objektiboa, eta, aurrekoei lotuta, erantzukizunak duen hedapen pertsonala.

Enpresariaren erregimenaren beste aspektu garrantzitsu bat ordezkari bat da; izan ere, enpresariak berak zuzenean egin ditzake eragiketak (pertsone fisikoa denean) edo, normala dena, ordezkarien bidez jardungo du. Ordezkari bat mota ezberdina izan daiteke: legezkoa (hau da, legeak berak ezarritakoa; enpresaren munduan ez du garrantzi handirik), organikoa (pertsone juridikoek trafikoa parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa da organoak izatea eta haien bidez jardutea), eta borondatezkoa. Kapitulu honetan, oro har, ordezkariak izan behar dituen betekizunak aztertzen dira (ahalorde nahikoa izatea, eta kontratua edo egintza egiterakoan ordezkari bat agerraraztea), baita enpresan egon daitezkeen borondatezko ordezkariak motak ere: ordezkari orokorra edo faktorea (ageriko faktorearen kasu bereziarekin), eta ordezkari singularrak (saltzaileak edo zerbitzariak).

Enpresariaren estatututik eratorritako betebeharrak bat kontabilitatea eramateko betebeharra da, enpresari guztiei dagokiena (nahiz eta enpresariaren arabera kontabilitatearen betekizun zehatzak ezberdinak izan daitezkeen), hirugarrenen, bazkideen, interes publikoaren eta enpresariaren beraren mesedetan. Hori dela-eta, ikasgai honetan kontabilitatea eramateko obligazioaren elementu nagusiak aztertzen dira, bereziki ikuspegi formaletik, kontuen ikuskapenaren erregimena ere modu orokorrean jasoz (bereziki, ikuskapena egiteko arduradunak, ikuskapena egitera derrigortuta dauden enpresariak, ikuskapenaren edukia, eta bertatik erator daitezkeen erantzukizuna).

Laugarren ikasgaiarekin jarraitzeko, Merkataritzako Erregistroa eta enpresariaren eta haien ekintzen inskribatzearen erregimena ikasten da. Merkataritzako Erregistroaren existentziaren helburua abiapuntutzat hartuta, zenbait elementu ikertzen dira: Erregistroaren antolakuntza, inskribatzearen prozedura eta inskribatze motak eta Erregistro-orriaren itxiera, subjektu eta ekintza inskribagarriak, Merkataritzako Erregistroaren printzipioak eta, bereziki, Erregistroak ematen duen publizitatearen erregimena eta eragina, zeinak ondorio garrantzitsuak baititu itxura juridikoa babesteko.